



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Grekoa II

USE 2024


www.ehu.eus

Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietañ kodea jartzea.

Proba idatzi honek **bi atal ditu, A eta B; biak** egin behar dituzu.

A atalean 2 itzulpen-ariketa daude eta testu bakoitzari hiru galdera dagozkie. **Bi multzoetako bat bakarrik** hautatu behar duzu: **A1 edo A2**.

B atalean hiru galdera daude eta horietako bakoitzak bi aukera ditu (a edo b): **hiru galderrei erantzun** behar diezu, baina galdera bakoitzean **aukera bakar bat** hautatu behar duzu (**a edo b**).



A ATALA: Itzulpena eta hari lotutako galderak

(Atal honetan 2 itzulpen-ariketa daude eta testu bakoitzari hiru galdera dagozkio. Bi multzoetako bat bakarrik hautatu behar duzu: A1 edo A2)

A.1.

Itzuli testu hau, eta erantzun lotutako galderei (itzulpena: 5 puntu).

Apolodoro, Epitomea 7.8

Odiseo eta haren lagunak Ziklopearen haitzulotik irten dira, haren artaldean ezkutatuta. Itsasoratzean, Odiseok bere benetako izena zein den azaldu dio Ziklopeari, eta jakinarazi dio haren helmenetik kanpo dagoela.

(Οδυσσεὺς) σὺν τοῖς ποιμνίοις ἔξηλθε¹, καὶ λύσας τοὺς ἑταίρους τῶν ποιμνίων, ἐπὶ τὰς ναῦς ἐλάσας² ἀποπλέων ἀνεβόησε³ Κύκλωπι ὡς Ὁδυσσεὺς εἴη⁴ καὶ ἐκπεφεύγοι⁵ τὰς ἐκείνου χεῖρας.

A.1 testuari lotutako galderak

- Honen analisi sintaktikoa: (Οδυσσεὺς) ἀνεβόησε Κύκλωπι ὡς Ὁδυσσεὺς εἴη καὶ ἐκπεφεύγοι τὰς ἐκείνου χεῖρας. (1 puntu)
- Honen analisi morfologikoa: λύσας. Joka ezazu aditz hori indikatiboko orainaldi aktiboan. (0,5 puntu)
- Honen analisi morfologikoa: ποιμνίοις. Izen horren singularreko deklinabidea. (0,5 puntu)

A.2.

Itzuli testu hau, eta erantzun lotutako galderei (itzulpena: 5 puntu).

Lisias, Eratostenesen heriotzaren defentsan, 1.10

Eratostenesek epaimahaiari esan dio emaztea sarritan beheko solairura jaisten zela haurrekin lo egin eta hora zaintzeko, baina berak ez zuela susmo txarrik izan.

¹ ἔξέρχομαι aditzaren indikatiboko aoristo aktiboaren singularreko hirugarren pertsona.

² ἐλαύνω aditzaren partizipio aoristo aktiboaren nominatibo singular maskulinoa.

³ ἀναβοάω.

⁴ Zehar-optatiboa.

⁵ Zehar-optatiboa. ἐκφεύγω (“ihes egin”) aditzaren optatiboko perfektu aktiboaren singularreko hirugarren pertsona.

GREKOA

GRIEGO

πολλάκις ἡ γυνὴ ἀπήει⁶ κάτω καθευδήσουσα⁷ ὡς⁸ τὸ παιδίον, ἵνα⁹ τὸν τιτθὸν¹⁰ αὐτῷ διδῷ¹¹. καὶ ταῦτα πολὺν χρόνον οὕτως ἐγίγνετο, καὶ ἐγὼ οὐδέποτε ὑπώπτευσα¹².

A.2 testuari lotutako galderak

1. Esaldi honen analisi sintaktikoa: πολλάκις ἡ γυνὴ ἀπήει κάτω καθευδήσουσα ὡς τὸ παιδίον. (1 puntu)
2. Aditz honen analisi morfologikoa: ἐγίγνετο. Joka ezazu aditz hori indikatiboko orainaldian, boz ertain-pasiboan. (0,5 puntu)
3. Izen honen analisi morfologikoa: χρόνος. Izen horren pluraleko deklinabidea. (0,5 puntu)

B ATALA: Galderak

(Atal honek hiru galdera ditu, eta bakoitzak puntu bat balio du; galdera bakoitzean aukera bakar bati erantzun behar diozu)

B1. Erantzun bi aukera hauetako bati

- a) Azaldu itzazu χεῖρας terminoaren esanahia eta etimologia. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak. (1 puntu)
- b) Azaldu itzazu ἐγὼ terminoaren esanahia eta etimologia. Termino horrekin erlazioa duten gaztelaniazko eta euskarazko hitzak. (1 puntu)

B2. Erantzun bi aukera hauetako bati

- a) Oratoria grekoa: Lisias. (1 puntu)
- b) Epika grekoa: Homeroren *Odisea*. (1 puntu)

B3. Erantzun bi aukera hauetako bati

- Aristofanesen *Lisistrata*: obraren argumentua. (1 puntu)
- b) Sofoklesen *Antigona*: obraren argumentua. (1 puntu)

⁶ ἔπειμι 2 aditzaren indikatiboko burutugabe aktiboaren singularreko hirugarren pertsona.

⁷ καθεύδω aditzaren geroaldiko partizipio aktiboaren nominatibo singular femeninoa.

⁸ ὡς, hemen, preposizioa da: “-en ondoan”.

⁹ ἵνα, hemen, helburuzko konjuntzioa da; subjuntiboarekin erabiltzen da.

¹⁰ τιτθός-τιτθοῦ, bularra.

¹¹ δίδωμι aditza. δίδωμι + τιτθός-τιτθοῦ aditza: “bularra eman (haur bati)”.

¹² ὑποπτεύω aditzaren indikatiboko aoristo aktiboaren singularreko lehen pertsona.

**ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN**

EAU 2024

KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

GREKOA II

2024ko USEko GREKOko ariketak irizpide hauei jarraituz kalifikatuko dira:

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzeari (hiztegiarekin) 0 puntuik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Hauek balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, grekoaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuen adieraztea eta, ahal den neurrian, egitura horiei eustea itzulpenean.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntuik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta analisian eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntuik 0,5 puntuaria bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino proposatutako formak jokatzeagatik.
4. Izen-morfologiaren galderari 0 puntuik 0,5 puntuaria bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik, eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.
5. Lexikoari buruzko galderari ere 0 puntuik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino proposatutako hitzaren etimología eta esanahia emateagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) aipatzeagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntuik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo gaiari buruz idazteagatik.
7. Irakurtzeko proposatzen diren obrei buruzko galderari 0 puntuik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak obrak benetan irakurri izana islatuko du.